

3/2023 EBAZPENA, MARTXOAREN 16KOAN, FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEARENA, 2022AN EMANDAKO ZERBITZUAK BIRBAREMATU ONDOREN INDARREAN DAUDEN LAN-POLTSEI DAGOZKIEN ZERRENDAK ARGITARATZEA XEDATZEN DUENA.

RESOLUCIÓN 3/2023, DE 16 DE MARZO, DEL VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA, POR LA QUE SE DISPONE LA PUBLICACIÓN DE LOS LISTADOS CORRESPONDIENTES A LAS BOLSAS DE TRABAJO VIGENTES, TRAS LA REBAREMACIÓN DE LOS SERVICIOS PRESTADOS EN 2022.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorean eta haren erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko Gobernanzta Publiko eta Autogobernuko sailburuaren 2021eko urtarrilaren 7ko Aginduaren 35. artikuluak ezartzen duenez, baldin eta Aginduaren 1. artikuluan ezarritako ezaugarriak badituzte, lan-poltsetan sartuta dauden langileak EAEko Administrazio Orokorean edo berorren erakunde autonomoetan bete dituzten zerbitzuen arabera birbarematuko dira. Era berean gaineratzen du, lan-poltsetan daudenen puntuazioa 0,003 puntuz handituko dela aurreko urtean lanean emandako egun bakoitzeko.

La Orden de 7 de enero de 2021, de la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno, sobre selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos, en su artículo 35, dispone que el personal integrante de las bolsas de trabajo que reúna las características que se establecen en el artículo 1 de dicha orden será rebaremado de acuerdo a los servicios prestados en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. Asimismo, señala que la puntuación de los integrantes se incrementará 0,003 puntos por día trabajado durante el año anterior.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Kidego eta Eskalei buruzko azaroaren 11ko 7/2021 Legea indarrean sartu ondoren, lege horretan ezarritako kidego eta eskaletan langileak integratzeko prozesua gauzatu da, bai eta lege horretako kidego eta eskaletako administrazio orokorraren lan-poltsak egokitzeko prozesua ere.

Tras la entrada en vigor de la Ley 7/2021, de 11 de noviembre, de los Cuerpos y de las Escalas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, se han llevado a cabo el Proceso de Integración del personal en los Cuerpos y Escalas establecidos en la citada Ley, y el Proceso de Adecuación de las bolsas de trabajo de la Administración General de los Cuerpos y Escalas de la misma.

Aipatutako prozesuen ondorioz, 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, biak barne, emandako zerbitzuen birbaremazioan honako hau hartuko da kontuan:

Como consecuencia de los procesos citados, en la rebaremación de los servicios prestados entre los días 1 de enero y 31 de diciembre de 2022, ambos inclusive, se tendrá en cuenta lo siguiente:

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ
tef. 945 01 85 79 – Fax 945 01 86 48



1.- Eskala batean integratuta eta eskala horretan indarrean dagoen poltsara egokituta dauden pertsonak. Oro har, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra arte emandako zerbitzuak birbarematu egingo dira izendapen-escalari dagokion poltsan.

2.- Eskala batean integratu ez ziren pertsonak. Integrazio-prozesuaren aurretik emandako zerbitzuak izendapen-escalako indarrean dagoen lan-poltsan birbarematuko dira.

3.- Desagertu beharreko poltsa batean geratu ziren pertsonak, indarrean dagoen poltsa batera ezin izan zirelako egokitu. Emadako zerbitzuak poltsa horretan birbarematuko dira.

4.- Indarreko lan-poltsetan dauden lan-kontratuko langileak. Emadako zerbitzuak lan-kontratuari dagokion kategoriaren lan poltsan birbarematuko dira.

Horregatik guztiagatik,

EBATZI DUT

1.-Indarrean dauden lan-poltsak berriro barematzeari ekitea. Birbarematze horretan, 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31a arteko epean, biak barne, emadako zerbitzuak 0,003 puntuz egun bakoitzeko baloratuko dira, baldin eta EAEko Administrazio Orokorean eta bere erakunde autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruz Aginduaren1. artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badira.

Eginiko zerbitzuak berriro barematzearen ondorioz sortutako lan-poltsen hurrenkera

1.- Personas que están integradas en una escala y adecuadas a la bolsa vigente de dicha escala. Con carácter general, los servicios prestados desde el día 1 de enero de 2022 hasta el día 31 de diciembre de 2022 se rebaremarán en la bolsa correspondiente a la escala de nombramiento.

2.- Personas que no fueron integradas en una escala. Los servicios prestados con anterioridad al proceso de integración serán rebaremados en la bolsa vigente de la escala de nombramiento que tuvieran.

3.- Personas que no pudieron adecuarse a ninguna bolsa vigente, quedándose en una bolsa a extinguir. Los servicios prestados se rebaremarán en esa bolsa.

4.- Personal laboral que forma parte de las bolsas vigentes. Los servicios prestados se rebaremarán en la bolsa de trabajo que corresponda a la categoría de su contrato laboral.

En su virtud,

RESUELVO

1.- Proceder a la rebaremación de las bolsas de trabajo vigentes. En dicha rebaremación se puntuará a razón de 0,003 puntos por día trabajado los servicios prestados que reúna las características que se establecen en el artículo 1 de la Orden que regula la selección de personal para la prestación de servicios de carácter temporal en la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos en el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2022 y el 31 de diciembre de 2022.

El nuevo orden de las bolsas de trabajo resultante de la rebaremación de los servicios

berria 2023ko martxoaren 20an sartuko da indarrean. prestados entrará en vigor el día 20 de marzo de 2023.

2.-Birbaremazio horren ondorioz sortuko diren zerrendak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lan-poltsetako Atarian argitaratzeko agintea. Zerrenda horiek eskuragarri egongo dira helbide honetan:

<https://www.euskadi.eus/administracio-orokorraren-lan-poltsak/web01-sedeep/eu/>

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekursoa aurkeztu ahal izango zaio Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari, hilabeteko epean, ebazapena argitaratu eta hurrengo egunetik aurera.

2.-Ordenar la publicación de los listados resultantes de dicha rebaremación en el Portal de bolsas de trabajo de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus Organismos Autónomos. Los listados estarán accesibles en la dirección:

<https://www.euskadi.eus/bolsas-de-trabajo-de-la-administracion-general/web01-sedeep/es/>

Contra la presente Resolución, que no pone fin a la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante la Consejera de Gobernanza Pública y Autogobierno en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteiz

JOSE MARIA ARMENTIA MAKAZAGA
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA /VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA